

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3668

656/2018 EBAZPENA, ekainaren 25ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez M.^a Luisa Fernández González andrea kentzen baita Larrialdien kudeaketa-zuzendariaren lanpostutik.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 20ko 2070/1998 Ebazpenaren bidez (abenduarien 23ko EHAA, 244. zk.), M.^a Luisa Fernández González andrea Larrialdien kudeaketa-zuzendari izendatua izan zen.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aintzat hartuta, Zuzendaritza Nagusiak honako hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– M.^a Luisa Fernández González andrea Larrialdien kudeaketa-zuzendariaren lanpostutik kentzea, erretiroa hartu duelako, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2018ko ekainaren 30etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunari eta Osakidetzako Larrialdietako zerbitzuari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko ekainaren 25a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA JESÚS GEMMA MÚGICA ANDUAGA.